



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/02/23

Bizkaiko Batzar Nagusiek Renferen transferentzia eskatu dabe

Bizkaiko Batzar Nagusiek, Renfek Bizkaian ustiatzen dituan aldirietako lineen transferentzia eskatzen eban arauz besteko proposamena onartu dabe. EH Bilduk planteau dauen proposamenean, ganera, eskaria egiten jako ADIFi, Estaduko trenbideko azpiegituren administratzaile danez, Bilbo-Santurtzi, Bilbo-Muskiz eta Bilbo-Urduña lineatan “segurtasuneko eta irisgarritasuneko” beharrezko hobekuntzak egin daizan. Batzarretako talde guztiek ekimenaren aldeko botoa emon dabe, kontra bozkatu dauen PP taldeak izan ezin.

Zigor Isuskiza EH Bilduko batzordekideak salatu dauenez, Gobernu zentralak “hamarkadak” deroaz estaduaren titulartasunekoak diran trenbide lineak hobetzeko ezer egin barik. “Urrundik eta interes barik kudeatuta dagoz”. Koalizino abertzaleko batzordekideak adierazo dauenez, garraio bide horren erabiltzaileek “zaharkitutako” instalazinoak aurkitzen ditue, Estaduarentzat Bizkaiko lineek “ez dabelako lehen tasunik izan”.

Isuskizak, “gabezia horreek agerian jarten ebazan” Arartekoaren 2011ko txosten bat eta hiru lurralde historikoetan onartu diran ekimenak aitatu ditu. Ekimen horreetan bidaiarien trenbide lineen eskumena eskatzen zan. Horri guztiari, orain denpora gitxi Iñigo Urkullu Lehendakariak berak beren beregi egin dauen eskaria gehitu behar jakola, gogoratu dau.

Batzordekide abertzaleak, bere gorpildun aulkiagaz eskilara zati bat gaintu ezin dauenez Renfek herri horretan eskintzen dauen zerbitzua erabili ezin dauen Maria Luisa Goikoetxea Urduñako biztanlearen kasua ekarri dau Bizkaiko Batzar Nagusietako Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesiorako Batzordera. Horrez gain, Basauriko Bidebietako geltokian dagozan “irisgarritasuneko eta segurtasuneko” arazoak be aitatu ditu.

Onartu dan arauz besteko proposamenean, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egiten deusie Eusko Jaurlaritzari, zerbitzuaren eta azpiegituraren transferentzia eskatu deion Espainiako Gobernuari, eta “zerbitzua eskuratu eta atoan egin beharreko hobekuntzak egin ahal izateko plangintzea egin daian”.

Azken puntu hori izan da PP taldeak ekimenaren alde ez agertzeko aitatu dauen gaia, Jesús Isasi batzordekidearen eretz kontraesanak ditualako. Alde batetik, “preminazko eskaria” egiten jako Adif enpresa publikoari hobekuntzak egin daizan, eta bestetik eskaria egiten jako Gasteizko Jaurlaritzari gauza bera egin daian. “Ez dago argi transferentzia konponketak egin aurretik edo egin ostean” egin behar dan, esan dau



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

batzordekide popularrak. Irisgarritasunagaz lotutako hobekuntzei jagokenez, Isasik adierazo dau bera izan zala Bizkaiko PP-ren hauteskundeetako programan sartzeaz arduratu zana.

Ganerako taldeek bat egin dabe EH Bilduren proposamenagaz, baina PSE-EE-k argitu gura izan dau gobernu sozialistentzat gai hori benetako “lehentasuna” izan zala. Patxi López Eusko Jaurlaritzaren buru zala, “dana prest itzi genduan transferentzia hori lortzeko”, adierazo dau Joaquín Colmenerok, eta gogoratu dau iraganean hobekuntza “garrantzitsuak” egin dirala estaduko sarean, baina beharbada “Bilbon zentralizautako hobekuntzak”, autortu dauenez. Horren adibide moduan, Bizkaiko uriburuko ibilpidean Feveren linea lur azpian sartzea aitatu dau.

Batzarretako taldeek eskaerea egin dabe Renferen aldirietako lineen transferentzia “ahalik eta arinen egin daiten”, eta geltoki batzuetan dagozan irisgarritasun arazoei “konponbidea” emoteko. EAJ-PNV-ren eretxiz, eskari hori “Gernikako Estatutuan bertan jasoten dan” errebindikazino historikoa da.

FORMULA JURIDIKOA BIZKAIKO GARRAIOAREN AGINTARITZARAKO

Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesiorako diputatuak PP taldeak eskatu dauen agerraldian adierazo dauenez, Euskadiko erakundeak, Bizkaiko Mugikortsunaren Agintaritza Bakarra izango danaren formula juridikoa eztabaidetan ari dira, bera buru dauen Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP-CTB) barruan sortu dan batzorde berezian. Reyesek esan dauenez, organo horrek akordio bat lortu dau, inplikauta dagozan erakundeek garraioaren kudeaketea laga daien “administrazioen arteko lankidetzarako organuaren” bitartez, erakunde guztiek “euren borondatez” sinatuko daben hitzarmenean oinarrituta.

Lankidetzan oinarritutako formula horrek aukera emongo leuke “erakundeek eskumena izango daben eta aurrera eroan beharreko jarduketak erabagiko dituen garraioaren kudeaketea izateko, horren ostean, sistema ondo helduta eta finkatuta dagoanean, izaera juridiko propioa eta osatzen daben Administrazioetatik banandutakoa izango dauen alkartze libreko partzuergoaren formulara heltzeko”. Partzuergo horrek Lurraldeko Garraio Agintaritzaren helburuak eta eginbeharrak bere gain hartuko leukez.

Aldundiak “laneko hainbat bilera izan ditu gugaz harreman estuagoa daben erakundeakaz eta operadoreakaz, Eusko Jaurlaritzagaz, batez be”, eta daborduko “bilera formal bi egin dira etorkizuneko Bizkaiko Mugikortasun Agintaritzan parte hartzea gomendagarria dan erakunde eta operadore guztiakaz”. Horreen artean honeek aitatu ditu Reyesek: Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Metro Bilbao, Bilboko eta Barakaldoko udalak, RENFE eta FEVE. Ganera, tokiko garraioa daben beste udal batzuei, Etxebarri, Bermeori, Erandiori eta Sopelari, besteak beste, emondako pausuei buruzko “informazioa” emoten jakela gehitu dau diputatuak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bizkaiko Mugikortasunaren Agintaritza Bakarraren helburua lortzeko emon beharreko pausuak “modu ordenatuan eta zentzuz” emoten diran bitartean, Reyesek esan dau helburu hori Tarifak bateratzeko Sistema eratzetik aparte geratzen dala. Sistema horren helburua, Bizkaian bidaiatzea “bardin kostetea da”, operadore bat edo bestea aukeratzeko bada be. PP taldeak, barriz, lehenengo agintaritzea sortu behar dala adierazo dau. Batzarretako gainerako taldeak diputatuaren tesiaren alde agertu dira.

BIZIKLETENTZAKO BIDEEN LPS-A

Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesiorako Batzordearen saioaren ostean Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako diputatuaren agerraldia etorri da. Diputatuak Bizikletentzako Bizkaiko Bideen Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) egungo egoera aztertu dau. Ibilpide orri horrek 2003-2016 Bizikleta Plan Zuzendaria ordeztuko dau. Pradalesek zuzentzen dauen saila, “idatzi beharreko LPS-aren sarea osatuko leuken bizikletentzako lurralde sare egituratzailea izan beharko litzatekenera hurbiltzeko lanean” ari da une honetan.

LPS horren “aurretik” egin beharrekoen artean, esan behar da Bizkaiko bizikleta sarea “309 kilometro gehiago” inguru izatera dagoala zuzenduta, eta horreetatik “120 Aldundiaren eskumenekoak izango litzatekezala”. Gaur egun “140 kilometro prest dagoz (%40); proiektuta edo garapeneko fase batean edo bestean, 36 kilometro; eta gainerako 149 kilometroak planeamendu fasean dagoz”, zehaztu dau. Aldundiaren eskumeneko 120 kilometroei jagokenez, LPS-aren haserako aurreikuspen hori kontuan izanda, “gaur egun 37 kilometro prest dagoz, eta gainerako 83ak egin barik dagoz oraindino”.

Diputatuaren eretziz, “aurreikusitako” sareak ezaugarri honeek beteko leukez: eskualdeen artean eta ondoko lurraldeakaz izan beharreko komunikazioa erraztea; bizikletaren eguneroko erabilera sustatzea, mobikortasun sortzaileak lotuz eta garraio publikoagaz izan beharreko intermodaltasuna bultzatuz; eta, ganera, bizikletentzako bideetako segurtasuna be hobetu beharko leuke “istripu gutxiago egon daiten”.

Une honetan, Foru Aldundia aholkularitza tekniko kontratatuko plegu teknikoak prestetan ari da, legegaldi honetan banatu beharreko "350.000 euro" inguruko aurrekontuagaz. Laguntza hori esleitu ostean, sailak “lanerako epealdia” zabalduko leuke, administrazioen eta herritarren partaidetzagaz, foru araudia betez. “LPS hori prestetako, onesteko eta indarrean jarteko epea 36 hilebetekoa da”, esan dau.

Horren aurretik Pradalesek esan dau 2015. urtearen bukaeran Bizkaiak “egokitutako” “312 kilometro” bizikletentzako bide dituala, Bizkaiko 83 udalerritan. Horreetatik “48” Aldundiak kudeatzen ditu, eta gainerakoak udalek.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Joan dan zezeilaren 1ean Unai Rementeria Ahaldun Nagusiak Euskalduna Jauregian aurkeztu eban Bizkaia Goazen 2030 estrategiari jagokonez, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko sailak “44 ekintza” bultzatuko ditu legealdi honetan –planean aurreikusten diran 120 ekintzetatik–. Ekintza horreek “492,4 milioi euroko” inbertsinoa jasoko dabe, Pradalesek zehaztu dauenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

23/02/2016

Las Juntas Generales de Bizkaia reclaman la transferencia de Renfe

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado hoy una proposición no de norma que pide la transferencia al País Vasco de las líneas de cercanías Renfe en Bizkaia. En la propuesta planteada por EH Bildu se insta además a ADIF, como administrador de infraestructuras ferroviarias del Estado, a realizar las mejoras necesarias en “seguridad y accesibilidad” en las líneas Bilbao-Santurtzi, Bilbao-Muskiz y Bilbao-Orduña. Todos los grupos junteros han apoyado la iniciativa, a excepción del PP que ha votado en contra.

El apoderado de EH Bildu Zigor Isuskiza ha denunciado que el Gobierno central lleva “décadas” sin actuar en la mejora de las líneas ferroviarias de titularidad estatal. “Gestionadas desde la lejanía y sin interés”, el juntero de la coalición abertzale ha sostenido que los usuarios de este transporte se encuentran con instalaciones “obsoletas”, debido a que para el Estado las líneas vizcaínas “no han sido prioritarias”.

Isuskiza ha hecho mención a un informe del Ararteko del año 2011 que ponía “en evidencia estas carencias” y a iniciativas aprobadas en los tres territorios históricos en donde se demandaba la competencia de las líneas ferroviarias de viajeros, a lo que se ha unido, recientemente, una petición expresa del propio lehendakari, Iñigo Urkullu, ha recordado.

El juntero abertzale ha traído a la comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio de las Juntas Generales de Bizkaia el caso de Maria Luisa Goikoetxea, vecina de Orduña que no puede utilizar el servicio de cercanías de Renfe en esta localidad debido a la imposibilidad de sortear con su silla de ruedas un tramo de escaleras, así como los problemas de “accesibilidad y seguridad” existentes en la estación basauritarra de Bidebieta.

En la proposición no de norma acordada, las Juntas Generales de Bizkaia instan al Gobierno Vasco a que solicite la transferencia del servicio y la infraestructura al Gobierno de España, y que “realice una planificación para ejecutar las mejoras necesarias tan pronto como asuma el servicio”.

Precisamente, es en esta última cuestión en la que se ha apoyado el PP para no apoyar la iniciativa, ya que el juntero Jesús Isasi ha visto contradicciones. Por un lado, se “urgía” a la empresa pública Adif a realizar mejoras, mientras por otro, se instaba al Ejecutivo de Gasteiz a lo mismo. “No queda claro si se da la transferencia sin arreglos o con ellos”, ha dicho el apoderado popular. En cuanto a las mejoras de accesibilidad, Isasi ha



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

informado de que él mismo se encargó de incluirlas en el programa electoral del PP vizcaíno.

El resto de grupos se ha alineado con la propuesta de EH Bildu, si bien el PSE-EE ha matizado que para los gobiernos socialistas este asunto sí fue una “prioridad”. Con Patxi López al frente del Gobierno Vasco “dejamos todo preparado para lograr esa transferencia”, ha mantenido Joaquín Colmenero, que ha recordado que en el pasado se han hecho “importantes” mejoras en la red estatal aunque “igual centralizadas en Bilbao”, poniendo como ejemplo el soterramiento de Feve en su recorrido por la capital vizcaína.

Los grupos junteros han pedido que la transferencia de las líneas de cercanías de Renfe se ejecute “lo más pronto posible” y que se dé una “solución” a los problemas de accesibilidad de algunas estaciones. Para el PNV, esta petición es una reivindicación histórica que está “incluida en el propio Estatuto de Gernika”.

FORMULA JURÍDICA PARA LA AUTORIDAD DEL TRANSPORTE DE BIZKAIA

Por su parte, el diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, ha señalado en una comparecencia solicitada por el PP, que las instituciones vascas debaten la formula jurídica de la futura Autoridad Única de la Movilidad de Bizkaia en el seno de una comisión especial creada en el seno del Consorcio de Transportes de Bizkaia (CTB) que preside él mismo. Según Reyes, en dicho órgano se ha adoptado un acuerdo que pueda permitir a las instituciones implicadas ceder la gestión del transporte a través de un “órgano interadministrativo de cooperación” mediante el correspondiente convenio suscrito “de forma voluntaria” por las distintas instituciones.

Esta fórmula de cooperación permitiría “una gestión del transporte en la que las instituciones mantienen la competencia y acuerdan las actuaciones a realizar, para posteriormente, una vez maduro el sistema, acabar en una fórmula de consorcio de libre asociación, con personalidad jurídica propia y diferenciada de las Administraciones que lo integran”. Este consorcio incorporaría los objetivos y funciones de la Autoridad Territorial del Transporte.

La Diputación ha mantenido “ varias reuniones de trabajo con las instituciones y operadores con los que tenemos una relación más directa, especialmente con el Gobierno Vasco”, y se han llevado a cabo ya “dos reuniones formales con todas las instituciones y operadores que sería deseable que participaran en la futura Autoridad de Movilidad de Bizkaia”, entre las que Reyes ha citado: la Diputación, el Gobierno Vasco, Metro Bilbao, ayuntamientos de Bilbao y Barakaldo, RENFE y FEVE. A su vez, el diputado ha dicho que mantiene “informados” de los pasos a otros ayuntamientos que tienen transporte local como Etxebarri, Bermeo, Erandio y Sopelana.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Mientras se dan los distintos pasos de forma “ordenada y sensata” para alcanzar la meta de la Autoridad Única de la Movilidad de Bizkaia, Reyes ha defendido que este objetivo queda al margen de la creación de un Sistema de Integración Tarifaria, para que viajar en Bizkaia “cueste lo mismo” independientemente del operador elegido, en contra de la opinión del PP que se ha mostrado partidario de crear primero la autoridad. El resto de grupos junteros se ha alineado con la tesis del diputado.

PTS DE VÍAS CICLISTAS

A la sesión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, le ha seguido una comparecencia del diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, que ha hecho un repaso de la situación actual del Plan Territorial Sectorial (PTS) de Vías Ciclistas de Bizkaia, hoja de ruta que vendrá a sustituir al Plan Director Ciclable 2003-2016. El departamento que dirige Pradales trabaja actualmente “en una aproximación sobre cuál debiera ser la red estructurante territorial ciclable que conformaría la red objeto del PTS a redactar”, ha dicho.

En los trabajos “preliminares” de este PTS, la red ciclista vizcaína va orientada a tener unos “309 kilómetros adicionales”, de los cuales “120 serían de competencia foral”. A fecha de hoy se encontrarían “habilitados 140 kilómetros (un 40%); proyectados o en distintas fases de desarrollo 36; y los restantes 149, estarían en fase de planeamiento”, ha especificado. En cuanto a los 120 kilómetros de competencia foral, según esta previsión inicial del PTS, “a día de hoy habría habilitados 37 kilómetros, estando pendientes de ejecución los restantes 83”.

Para el diputado, la red “estimada” cumpliría con las siguientes características: facilitar la intercomunicación entre comarcas y con territorios limítrofes; favorecer el uso cotidiano de la bicicleta al conectar los diferentes generadores de movilidad y favorecer la intermodalidad con el transporte público; y, además, debería suponer una mejora de la seguridad de las vías ciclables “para reducir la accidentalidad”.

En este momento, la Diputación está elaborando los pliegos técnicos para contratar una asistencia técnica, con un presupuesto aproximado de "350.000 euros" a distribuir en la presente legislatura. Tras adjudicar esta asistencia, el departamento abriría a continuación un “periodo de trabajo” con el concurso de administraciones y ciudadanía de acuerdo a la normativa foral. El plazo para la “elaboración, aprobación y puesta en vigor de este PTS es de 36 meses”, ha concretado.

Pradales ha informado previamente de que Bizkaia cuenta a cierre de 2015, con un total de “312 kilómetros” de vías ciclistas “habilitadas” que recorren terrenos de 83 municipios vizcaínos, de los que “48” kilómetros son de gestión foral y el resto son competencia municipal.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

BIZKAIA GOAZEN 2030

En relación a la estrategia Bizkaia Goazen 2030, presentada el pasado 1 de febrero por el Diputado General, Unai Rementeria, en el Palacio Euskalduna, el departamento de Desarrollo Económico y Territorial liderará durante esta legislatura un total de “44 acciones” –de las 120 previstas en el plan- que absorberán una inversión de “492,4 millones de euros”, ha concretado Pradales.